

PRENTSA-OHARRA

Abentura botaniko-espazialak mugikorraren bidez eta Galaxiako Lorategiaren sortze-prozesuari buruzko *time-lapse* dira Iruñeko baliabide didaktiko eta turistiko horren urrats berriak

Berdegune hori funtzionatzen hasi zela urtebete egingo da larunbatean, eta berriro ere, kosmosaren lorezainak bilatzen dira zuhaixkak babesean hartzeko

Larunbatean, urtebete egingo du Iruñeko Galaxiako Lorategiak: munduan dagoen halako bigarrena, eta Europako lehena. Hori ospatzeko eta hurrengo urratsa egiteko, Iruñeko Udalak eta Planetarioak gune horrekin lotutako bi baliabide berri aurkeztu dituzte, xede dutenak, gainera, hiriko bisitarientzat interes turistikoko ardatz izatea, eta herritarrentzat, aisialdirako tresna.

Proposamena webgune bati lotutako aplikazio bat da, aukera ematen duena hiru abentura “botaniko-espazialean” parte hartzeko, lorategian barna mugikorra eskuan ibilita. Hiru ezagutza-bidaia digital dira –eta fisikoak, ere bai–, bakarka edo taldeka egin daitezkeenak eta 30 minutu inguruan egiten direnak. Halaber, erakunde biek Interneten jarri dute Galaxiako Lorategiaren landatzeari buruzko *time-lapse* bat: kamera azkarrean egindako muntaia da, etenik gabe eta 12 m-ko altueratik egindako grabazio batena, 2017ko urtariletik uztaila bitarte. Bi baliabideak herritarren eskura daude dagoeneko, eta Udalak 8.802 euro inbertitu ditu horietan.

Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako eta Tokiko Ekonomia Jasangarriko zinegotzi Joxe Abaurreak eta Patricia Peralesek, hurrenez hurren, eta Iruñeko Planetarioko Didaktika arduraduna eta astrofisiko Fernando Jaureguik gaur goizean aurkeztu dituzte lorategia ezagutarazteko bi tresnak, eta horrez gain, jolasean aritu dira *Abentura espaziala Galaxiaren Lorategian* aplikazioarekin. Halaber, ekitaldian jakitera eman dute zuhaixkak babesean hartzeko kanpaina berria abiatuko dela ekainaren 23an. Izan ere, kosmosaren lorezainak behar dira oraindik ere; aleak iazko udaberritik landatuta dauden arren, zuhaixka guztiak modu homogeenan has daitezen, oraindik ere bada tokirik urruneko zaintzaileentzat.

Kamera azkarra aurkezpen gisa





Larunbatean 365 egun egingo ditu zabalik lorategiak. Baina 2017ko urtarrilean hasi ziren lan partizipatiboak gaur egun dagoen mota askotako 500 zuhaixkaz osatutako multzoa landatzeko. Orduan ere ikus-entzunezko proiektu bat abiatu zen, zazpi hilabete iraungo zuena: eremuko irudiak 24 orduetan grabatu ziren, lorategiaren hegoaldean eta lurretik 12 metrora kokatutako kamera baten bidez, erakutsi eta ikusi ahal izateko nola joan zen osatzen Iruñeko berdegune berezi hori.

Denbora eta espazioaren magnitudeek garrantzi handia dute beti lorategietan, hazi egiten diren elementu dinamikoen aldetik. Gainera, haien itxura aldatuz joaten da urtaroekin bat, hots, Lurrak Eguzkiaren inguruan egiten duen traslazio-mugimenduaren ondorioz. Baina lorategi honek badu beste elementu bereizgarri bat denbora eta espazioarekin loturikoa: lurrean irudikatzen du Esne Bidea, dimentsio fisiko-tenporal bat erabilita (100.000 argi urte).

Grabatutako irudia muntatu eta minutu eta 23 segundoko bideo bat osatu du Eduardo Beriainek. Lorategiaren bilakaera erakusten duen bistaratze azkarreko lan hori www.pamplonaescultura eta www.pamplonetario.org/ webgunean egongo da ikusgai aldi batean, eta www.pamplona.es webguneako hasiera-orrian ere bai. Asmoa da eduki hori sare sozialen bidez partekatzea, hiriko turismoarendako erakargarria den elementu hori ezagutarazi eta hedatzeko.

Abentura botaniko-espazialak denontzat

Lorategiko 30 metroko diamentrotan barna lorategia berdegune-ondarearen elementu bereizgarritzat hartuta egin daiteke ibilbidea, besterik gabe; baina sortzetik beretik, lorategia funtzio didaktikoa edukitzeko prestatu da, haren kiribilaren besoak eta beste zenbait elementu seinalezaturik baitaude Galaxiari buruzko argibideak emateko eta, hartara, zientzia dibulgatzeko.

Orain, familia giroko erabiltzaileentzat, tresna berri bat diseinatu da, abentura botaniko-espazialak bizitzeko. Proposatzen diren hiru bidaia interaktiboetako edozeinetan murgiltzeko, Android edo IOS sistema eragilea duen gailu mugikor bat baino ez da behar. Jolasak Udalarendako prestatu ditu MSM enpresak, eta gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez edo frantsesez daude eskuragarri. Diseinua ikusizko elementu gutxi dituen audiogida bat da, aire zabalean jolastekoa denez, horrela gutxitu egiten direlako islek eta eguzki-argi gehiegi egoteak pantailetan sortzen dituzten arazoak.

Sarreran kokatuta dagoen paneleko QR kodea irakurrita (edo hori irakurtzeko sistemarik ezean, www.eljardindelagalaxia.pamplonacard.es/ helbidera joaz) eta sarrera komun baten ostean, internautari izarrarteko hiru bidaia diferente aurkeztuko zaizkio: *Izarren abentura*, *Planeten abentura* eta *Bidaia bat ezagutzen ez dugun horretarantz*. Gailuaren pantailan agertzen diren sinboloak zuzen erlazionatuz zuhaixka artean ezkutatutako plaka txiki baliokideekin, eta betiere audiogidak ematen dituen jarraibideei men eginez, aurrera egin ahal izateko, esploratzaileak





jolasaren etapak gainditzen joango dira. Historia bakoitzak ibilbide eta amaiera desberdinak ditu, eta irteerarik gabeko aukerak ere daude, jokalaria atzera egiten behartuko dituztenak.

Audioek informazioa ematen dute Galaxiaren eta Esne Bidearen magnitudeen inguruan, bai eta hiriko lorategi eta landareen inguruan ere, oxigeno-produkzioaren gainean, etab. Ibilbide interaktiboa egin ostean, aplikazioa sare sozialetan partekatu daiteke, klik batez.

Beste aukera bat kosmosaren lorezain izateko

Ekainaren 23an, aukera egongo da Galaxiako Lorategian zuhaixkak babesean hartzeko. Joan den urteko udaberrian den-denak landatu ziren arren, 330 zuhaixka zuzenean landatu zituzten hezkuntza-erakunde, kolektibo eta elkarteek, betiere Parke, Lorategi eta Berdeguneetako Udal Zerbitzuaren gomendioekin bat eta Iruñeko Planetarioko irakasle-taldeak emandako testuinguru zientifikoa aintzat hartuta.

Ekainaren 23an, beste aukera bat egongo da proiektuan modu aktiboan parte hartu eta lorategian landatutako gainerako 170 zuhaixkak babesean hartzeko. Berriro ere, ikastetxe, kolektibo eta elkartei dei egin zaie; eta interesdunek parte hartzeko eskaera egin dezakete www.pamplonetario.org/jardindelagalaxia edo www.pamplonetario.org/galaxiarenlorategia webguneetan. Behin eskaerak tramitatu ostean, taldeetako ordezkariak azalpen-hitzaldi batera joango dira, planetariora, ibilbide laburra egingo dute lorategian, eta gero argazki bat aterako dute haien zuhaixkarekin batera. Aurreikusitakoaren arabera, goiz horretarako bi talde osatuko dira: 11:30ean jarduera gaztelaniaz egingo da, eta 12:30ean, euskaraz.

Ez badira zuhaixka guztiak babesean hartzen, datorren ikasturtean epe berria zabalduko da, eta hori ere Planetarioaren webgunean emango da jakitera. Udala pentsatzen ari da erreserbako zuhaixka-kupo bat mantentzea lorategian, interes instituzionaleko pertsona eta entitate ospetsuek babesean har ditzaten hiria bisitatzen dutenean.

Iruñean, 2018ko ekainaren 8an

